BIZKAIA
ENPRESA
BILERA•ENCUENTRO
2018

BIZKAIA
ENPRESA
BILERA•ENCUENTRO
2018

# Beaz 2018 Bizkaia

Berrikuntzaren bidean jakintza partekatuz
We share Knowledge to Innovate



# Open




**Imanol Pradales**

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko foru diputatua

Provincial Deputy of Economic and Territorial Development

“Konfort-txokotik irten eta arriskatu beharra dago”. Horrela laburtzen du Imanol Pradales Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko diputatuak, Bizkaiko Foru Aldundiak hartutako erronkari heltzeko izpiritua, hau da, lurraldea ekintzailetzarako hub bihurtzea eta enpresa eta zentro teknologikoekin batera berrikuntza irekiko eredua garatzen jarraitzea.

“Bizkaia lurralde berritzaile bezala eta enpresa berritzaile berriak abian jartzeko ardatz atlantikoko lekurik onena bezala errekonozitua izan dadila nahi dugu. Eta horretarako administrazio legez ere berritu behar dugu”, ziurtatzen du Pradalesek.

“We have to leave the comfort zone and take risks”. This is how the Deputy for Economic and Territorial Development, Imanol Pradales, summarises the spirit with which the Provincial Council of Bizkaia faces the challenge of turning the territory into a hub of entrepreneurship to continue developing an open innovation model together with companies and technology centres.

“We want Bizkaia to be recognised as an innovative territory and the best place on the Atlantic axis to launch new innovative companies. And that also forces us to innovate as an administration”, says Pradales.

**Berrikuntza irekiko dinamikak gero eta protagonismo handiagoa hartzen ari dira antolakunde eta enpresen artean. Nola jokatzen du Bizkaiko Foru Aldundia bezalako administrazio batek eredu honetan?**
Berrikuntza irekiko ereduaren oinarria enpresek beren mugak gainditu eta beste batzuekin elkarlanean aritzeko apustua da, beren jakintza konpartituz proiektu estrategikoak garatzeko. Beste batzuengana zabaltzea, zilborra begiratzeari utzi eta erronkei heltzeko beste batzuekin elkarlanean jardutea “berrikuntza irekia”ren gakoak dira. Ikuspegi hau berebiziko garrantzia hartzen ari da, izan ere digitalizazio masiboak jakintza eta egikera berriak arineketan eskuratzera behartzen gaitu, baldin eta lehiakorrak izaten jarraitu nahi badugu.
Bizkaiko Foru Aldunditik honelako elkarrekintza-prozesu hauek bultzatu ditugu. Startup, ETE eta produktu, prozesu eta erronka teknologiko bati balio erantsia eman diezaioketen jakintzaren arloko erakundeen arteko harremanei buruz ari naiz. Horretaz, uste dut berrikuntza irekiak adimen kolektiboa eransten duela eta lankidetza-eretan berritzera behartzen gaitu.

**Open innovation dynamics are gaining more and more importance among organisations and companies. How does a public administration like the Provincial Council of Bizkaia participate in this model?**
The open innovation model is based on the commitment of companies to overcome their limits and collaborate with others by sharing their knowledge to develop strategic projects. Open to others, stop contemplating one’s navel and cooperate collectively to face challenges are the keys to “open innovation”. This approach is gaining special importance at a time when a massive digitalisation pushes us to incorporate new knowledge and new ways of doing things against the clock, if we want to remain competitive.
From the Provincial Council of Bizkaia we have promoted this type of interaction processes. I refer to the relationship between startups, SMEs and knowledge organisations that can add value to a product, process or technological challenge. In this sense, I believe that open innovation incorporates collective intelligence, and we must innovate also looking for new ways of collaboration.

**Berrikuntza irekiko zein esperientzia azpimarratuko zenuke?**
Gaur egun zenbait ekimenetan sartuta gaude. Eta haietako batzuk oso interesgarriak eta iradokitzaileak gertatzen ari dira.
Bizkaia Open Future_, Telefónicarekin batera, jarraikortasuna izango duen proiektua da eta jada lortu du industria sektoreko enpresa erreferenteak startupekin harremanetan lotzea, 4.0 industriarantz aldatzen laguntza eman diezaieten. Velatia, Tecuni, Ingeteam, Gurutzetako Erietxea edo Dibal bezalako enpresak mundu osoko 150 hautagai baino gehiagorekin harremanetan jarri dira eta beren erronka teknologikoetako batzuk konpondu dituzte.
Iberdrolarekin izandako esperientzia ere nabarmenduko nuke, bere proiektu teknologikoekin bat datozen I+G+b-ko proiektuak finantzatzen laguntzen duelako. Eta hori egiteko sozietateen gaineko zergaren 64 bis artikuluan ezarritako zerga aukerez baliatzen da.
Eta azken adibide bat, Pierre Fabreren Open Innovationeko ekimena bioteknologiaren eremuan. Munduko dermokosmetikako 2. laborategi handiena da eta Euskadiko sektoreko ordezkarien artean bere ikerkuntza-ildoak eta arloak zabaltzeko ideiak eta proiektuak bilatzen ari zen.

**Bizkaiko Aldundia bera berrikuntza barneratzen ari da enpresei laguntza emateko bere programa batzuetan.**
Konfort-txokotik irten eta arriskatu beharra dago. Aldundi legez sarritan geure enpresei eskaintzen diegun errezeta berdina aplikatzen ari gara geure buruari; administrazio ekintzailea izan eta politika berritzaileekin arriskatzea.
Oso pozik gaude lehiakortasuna hobetzeko helburua duten foru programekin. Hauxe da berrikuntza, nazioarteratze eta inbertsioari laguntza osoa emateko 3i programaren kasua. Programa zorrotz eta selektibo honek 500 000 eurorainoko funts galdurako diru-laguntzak eskaintzen ditu hobi-merkatuetan lehiatzen diren enpresa oso espezializatuentzat. Hor dago 2i programa ere, berrikuntza teknologikoko proiektuak eta teknologikoak ez direnak bultzatzen dituena, ETEentzat inpaktu handia daukaten inbertsio aurreratuak.

**Startupen inguruko estrategiak ere badirudi jauzi handia egingo duela Bizkaiak ekintzailetzako nazioarteko zentro bat izango duela iragarri eta gero.**
Gaur egun ideia on bat duen ekintzaile orok badu bere eskura tresna publikoen aukera zabala garatzeko, baina uste dugu beste urrats bat egin eta Bizkaia Europako erreferentea izan dadila lortu behar dugula. Horretaz ari gara ekintzailetzaren gune edo hub bat sortu behar dela diogunean; ezagutuak eta errekonozituak izan behar dugu enpresa ideia berritzaileak abian jartzeko ardatz atlantikoko lekurik onena bezala. Proiekturik onenak erakarri nahi ditugu.
Ekitea eta berritzea txanpon bereko bi aldeak izan ohi dira. Eta Aldundian enpresen berrikuntzaren zerbitzura tresna berriak (finantzakoak edo laguntza emateko) jartzearen aldeko apustua egin dugu.

**Zeintzuk dira Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren erronkak arlo honetan?**
Baditugu etxerako lanak, bai. Berrikuntzaren ekosisteman gauden eragile publiko eta pribatuen artean ahaleginak batzen aurrera jarraitu nahi dugu. Nazioartean ere ikusgarriak izan behar dugu: eta hori soilik lortzen da ekintzailetzari dagokionez munduko lekurik berritzaileenak diren lekuekin joan-etorriko kanalak ezarriz, hala nola Boston, Silicon Valley, Helsinki, Londres eta Tel Avivekin.

**What open innovation experiences would you stand out?**
We are now immersed in different initiatives, and some of them are being very inspiring and interesting indeed.
Bizkaia Open Future, together with Telefónica, is a continuity project that has already brought together companies from the industrial sector with startups that help them in their transition towards industry 4.0. Companies such as Velatia, Tecuni, Ingeteam, Hospital de Cruces or Dibal have contacted more than 150 candidates from around the world and have had some of their technological challenges solved.
I would also highlight the experience with Iberdrola, which contributes to finance R & D & i projects of suppliers aligned with their technological challenges. And it does so by relying on the tax opportunities that derive from article 64 bis of corporation tax.
And finally, Pierre Fabre’s Open Innovation initiative in the biotechnological field. It is the second largest dermocosmetic laboratory in the world and was looking for ideas and projects among Euskadi-based sales representatives of the sector to broaden its lines and research areas.

**The Provincial Council of Bizkaia itself is embracing innovation in some of its new business support programmes.**
We have to leave the comfort zone and take risks. We are following, as Provincial Council, the same recipe that we often offer to our companies: be an entrepreneurial administration and risk with innovative policies.
We are very satisfied with the result of the regional programmes aimed at improving competitiveness. This is the case of the 3i, of integral support for innovation, internationalisation and investment. A demanding and selective programme that offers non-refundable grants of up to 500,000 euros for highly specialised companies that compete globally in niche markets. Or the 2i programme that supports innovation projects, both technological and non-technological, advanced investments, with high impact for SMEs.

**The strategy around startups also seems to take a big leap with the announcement that Bizkaia will have an international entrepreneurship centre.**
Today there is a wide range of public tools available to any entrepreneur who has a good idea to develop, but we believe that the time has come to take a step further and make Bizkaia a European benchmark. That’s what we talked about when we considered the need to create an entrepreneurship centre or hub, the challenge of becoming known and recognised as the best place on the Atlantic axis to launch new innovative companies. We want to attract the best projects.
Entrepreneurship and innovation are usually two sides of the same coin. And in the Provincial Council we want to develop new instruments (financial or accompanying) at the service of business innovation.

**What challenges does the Department of Economic and Territorial Development have in this area?**
We have homework, yes. We want to move forward in the concentration of efforts between the different agents, public and private, that are in the innovation ecosystem. And we must also be visible at an international level: And that is only achieved through the establishment of return channels with the most innovative places in the world in terms of entrepreneurship such as Boston, Silicon Valley, Helsinki, London or Tel Aviv.



# Berrikuntza irekia eta ekintzailetza eta berrikuntza ekosistemako bitarteko eragileen rol berria

# Open Innovation and the New Role of the Intermediate Agents of the Entrepreneurship and Innovation Ecosystem

**Ainara Basurko**
Beazko zuzendari nagusia / General manager of Beaz

Enpresei laguntzen eta haiekin batera bilakatzen 30 urte baino gehiago eman ondoren, badakigu garai bakoitza zenbait eragin eta baldintzaren fruitua dela eta, perspektibarik gabe hartuta enpresarekin zerikusirik ez dutela dirudien arren, azkenean ondorio handiak izaten dituzte enpresetan. Teknologiaren aurrerapenak eta etorkizunean ekarriko dituen aldaketek eztabaida asko sortzen dituzte, zabaldu dituzten aukerak bezainbeste. Teknologia berriek erraztu egiten dute informazioa eta jakintza eskuratzea, harremanak, talentu eta ideien mugikortasuna, malgutasuna... Enpresaren mundura ekarrita, berrikuntza bizkortzen dute, I+Ga bultzatzen dute, kostuak gutxitzen dituzte, balioa sortzen dute. Berrikuntza berria definitzeko gehien erabiltzen dituzten adjektiboetako hiru kolaboratiboa, irekia eta integratzailea dira; Beazentzat Bizkaiko enpresen artean jarrera hori erraztea bezain garrantzitsua bihurtu da bere egitea.

Bizkaiko Foru Aldundian lurraldeko antolakundeekin elkarlanean ari gara beste eragile batzuekin erronka estrategikoetan elkarrekintza-prozesu hauek errazteko. Balio erantsiko ezagutza ekar dezaketen startup, ETE eta teknologia eta ikerkuntzako erakundeekiko harremanari buruz ari gara, haiekin beste lotura-era batzuk ezartzeko. Berrikuntza irekiak adimen kolektiboa eransten du eta lankidetza-eretan ere berritzea dakar.

After more than 30 years supporting companies and evolving with them, we know that each era is the result of influences and determining factors that, seen without perspective, seem foreign to the company, but end up having great repercussions on it. The technological progress and the changes they will imply in the future are subject to great debates. New technologies provide access to information and knowledge, contacts, mobility of talent and ideas, flexibility... Translated to the business world, they accelerate innovation, enhance R & D, reduce costs, and generate value. Collaborative, open and inclusive, are the three adjectives that are most used to define new innovation; for Beaz, both to adopt it and to provide Biscayan companies the necessary tools to achieve it, are equally important.

From the Provincial Council of Bizkaia we have been collaborating with organisations of the territory in order to facilitate these interaction processes with other agents to tackle strategic challenges. We refer to the relationship with startups, SMEs, technological and research organisations that could provide added value knowledge, by establishing other forms of relationship with them. Open innovation incorporates collective intelligence and it also requires looking for new ways of collaboration.

Argitalpen honetan ikus daitekeenez, azken urtean Beazko lantaldeak berrikuntza irekiko zenbait programa kudeatzen eta dinamizatzen parte hartu dugu. Hainbat bidetatik esperimentatu dugu, beti ere enpresen berrikuntza eta dibertsifikazio prozesuak bizkortzen laguntzeko helburua izanik, haien erronkak enpresen lehiakortasunerako lagungarriak diren teknologia eta negozioen joera berrietan aitzindari diren beste eragile batzuekin konpartituz. Berrikuntza irekia gure enpresen kudeaketa eta kultura-ereduak iraultzen ari da, eta baita helburutzat lurraldeko enpresa-sarearen garapen ekonomikoan laguntzeko dugunona ere, ekosistemaren eragile dinamizatzaile bihurtuz.

Gaurkotuta egon behar dugu gure enpresen etorkizuna baldintzatuko dituzten lanabesei dagokienez; konektatuta egon behar dugu bertoko eta nazioarteko ekintzailetza-komunitateekin; berrikuntza behar dugu eragileen artean estrategia kolaboratiboak bultzatzeko programetan; azken batez..., gure enpresen berrikuntza irekiko estrategiak errazteko rola geureganatu behar dugu, eta horrek bilakarazi egiten gaitu.

Guk ere Bizkaiko enpresak jartzen ditugu gure jardueren erdigunean, haien garapen-etapa guztietan, eta edozein ekintzailetza eta berrikuntza prozesuren balio-kateko mailetan dauden bertoko nahiz nazioarteko beste eragile batzuekin geure erronkak konpartitzen ditugu. Esate baterako, nazioartean erreferentziakoak diren Boston eta Tel Aviveko nodoekin konektaturik gaude, hemengo eta hango startup, enpresa eta inbertsiogileak bizkortzeko eta lurraldeko enpresa erreferenteen berrikuntza, dibertsifikazio eta hazkunde-erronkak garatzeko xedeaz. Estrategia kolaboratiboak garatzen ditugu gure enpresen lehiakortasunean eragina eduki dezaketen joera eta jokabide onak arin ezagutu ahal izateko edo Bizkaian berrikuntza-prozesuak bizkortzen lagun dezaketen startup, mentore, inbertsiogile eta enpresa eragileen unibertso handiago batera heldu ahal izateko.

Guztiz bat gatoz Bizkaiko Foru Aldundiak hartu duen erabakiarekin, hau da, bere helburuko publikoari balioa emango dion administrazio berritzailearen aldeko apustua egitea; Beazko lantaldeak geure egiten dugu berrikuntza irekia, Bizkaiko ekintzailetza eta berrikuntza ekosistemako erreferentziako eragile bezala sendotu ahal izateko. Etengabeko aldaketa arinen testuinguru honetan indarrean dirau esaera zaharrak: “etsenpluaren bidez predikatu behar da”. Hurrengo galdera egin behar diogu egunero gure buruari: geure startup eta enpresei berrikuntzaren bidean lagundu ahal diegu guk geuk etengabe berritzen ez badugu? Argi dago ezetz. Garrantzitsua da hori beti aintzat har dezagun.

This publication shows that during the last year, Beaz has managed and promoted different open innovation programmes. We have experimented with various formulas that have in common the objective of contributing to accelerate the processes of innovation and diversification of companies, sharing their challenges with other agents at the forefront of new technological and business trends that contribute to the competitiveness of companies. Open innovation is revolutionising the management models and culture of our companies, but also of those whose mission is to contribute to the economic development of the business fabric of the territory.

We must be up-to-date on the issues that will shape the future of our businesses; we have to be in touch with local and international entrepreneurship communities; we have to innovate in programmes to promote collaborative strategies between different agents; in short ... we have to act as facilitators of open innovation strategies for our companies, and that leads us to progress.

Thus, Biscayan companies in their different stages of development are the centre of our activity, and we share our new challenges with other local or international agents that have different links in the value chain of any process of entrepreneurship and innovation. To give an example, we are connected to international reference entrepreneurship nodes such as Boston and Tel Aviv, trying to link startups, companies and investors, here and there, with the aim of accelerating the growth of startups in Bizkaia and the development of challenges of innovation, diversification or growth of the reference companies of the territory.

We develop collaborative strategies that allow us a quick knowledge of trends and good practices that may affect the competitiveness of our companies, or that allow access to a greater universe of startups, mentors, investors or leading companies that can help accelerate processes of innovation in Bizkaia.
We are completely aligned with the decision of the Provincial Council of Bizkaia to be an innovative administration that provides value to its target audience. Open innovation is part of Beaz's strategy as a tool that allows us to consolidate as a reference agent of the entrepreneurial ecosystem of Bizkaia. In this context of constant and rapid changes, the “practice what you preach” saying, is still valid. The question we should ask ourselves every day is can we help our startups and companies to innovate, if we do not innovate constantly? Obviously, not. It is important that we keep it in mind at all times.



“Berrikuntza irekia gure enpresen kudeaketa eta kultura-ereduak iraultzen ari da, eta baita helburutzat lurraldeko enpresa-sarearen garapen ekonomikoan laguntzeko dugunona ere”

# 2018

–

PREMIO ON BIZKAIA ENPRESA SARIA

2017an Beazek eta Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak, batera, 466 proiektu baino gehiago kudeatu zituzten. On Bizkaia sariek inpakturik handiena izan dutenak goraipatzen dituzte, bultzatzen dituztenen ahalegin eta konpromisoa eta Bizkaian jarduera ekonomikoa eta lanpostuak sortzen egindako ekarpena errekonozituz.

In 2017 Beaz and the Department of Economic and Territorial Development jointly managed over 466 project files. The On Bizkaia awards highlight those that have had the greatest impact and, the effort and commitment of those who promote them and their contribution to the generation of economic activity and employment in Bizkaia.

## Prosertek

–

PROSERTEK

**BERRIKUNTZA PROIEKTU SARIA**
Enpresa hau 1992an sortu zen Santurtzin eta gaur egun portu eta itsasontzietako tresneria diseinatzen, fabrikatzen eta instalatzen du, sektore horretan liderra delarik estatuan eta Europan. 25 urteko historian haren ezaugarri nagusiak berrasmatzeko gaitasuna eta etengabe lehiakortasuna hobetzeko ahalegina izan dira, beti erronka berriei helduz, produktu, prozesu, merkatu nahiz antolaketan izan. “Gure proiektu bakoitza I+G hutsa da” —diote—, eta hori egiaztatuta gelditzen da gaur egun Prosertek taldea munduko portu-azpiegitura nagusietan baitago.

**INNOVATION PROJECT**
Company created in 1992 in Santurtzi, dedicated to design, manufacturing and installation of port and naval equipment, leader at state and European level. 25 years of history marked by their ability to reinvent themselves and by the effort to continually improve their competitiveness, defining new challenges whether in product, process, market and organisation. “Each of our projects is pure R&D”-they say- something that supports the fact that the Prosertek group is currently present in the main port infrastructures of the world.

## Power Quality Control

–

PQC

**NAZIOARTEKOTZE PROIEKTU SARIA**
Bilboko ingeniaritza eta arkitekturako aholkularitza-bulego hau datuen prozesurako zentroen azpiegitura elektromekanikoak garatzen espezializatuta dago. Estatuko merkatuan lanean 15 urtetik gora bete ondoren, PQCk nazioarteko presentzia handitzea erabaki zuen. Txile, Mexiko eta Miamin merkataritza-zabalkunde prozesuei ekin zien eta gaur egun errotuta dago bertan. 2013an lehenengo lanak egiten hasi zen Perun, Telefónicaren eskutik; geroago Kolonbian ere proiektuak burutuko zituen. 2017ko amaieran sari bikoitza jaso zuen Latinoamerikan garatutako data center proiekturik onenak errekonozitzen dituzten Latam Awards sarietan.

**INTERNATIONALISATION PROJECT**
Bilbao-based engineering and architecture consultancy firm specialised in the development of electromechanical infrastructures of data processing centres. After 15 years devoted to the national market, PQC decided to expand their international presence. The commercial penetration processes started in Chile, Mexico and Miami, where they are already introduced today. Their first projects in Peru are developed in 2013 together with Telefónica; later, other projects are also carried out in Colombia. At the end of 2017, they won two of the categories of the Latam Awards, prizes that recognise the best data centre projects developed in Latin America.

## Lookiero

–

LOOKIERO

**ENPRESEN SORKUNTZA PROIEKTU SARIA**
Modaren sektoreko enpresa honek informazioaren teknologia berriak aholkularitza pertsonalizatuarekin lotzen ditu. Lookierok personal shopper taldeek denda fisikoetan eskaintzen duten zerbitzua erreplikatzen du eta bere on line bezeroen zerbitzura jartzen du plataforma baten bidez. Horra sartzen direnek beren neurriak, gustuak, aurrekontua, etab. zehazten dituzte eta eskaria egiten dute. Zenbait egunen buruan kaxa bat jasoko dute, barruan 5 janzki eta izan daitezkeen konbinaketak dakartzana. 2016an jarri zen abian Espainiako eta Frantziako merkatuetan eta urte batean enpresa 16 langile izatetik 100 izatera pasa da eta 9 aldiz handitu du bere negozio-bolumena. 2018an finkatzeko eta merkatu berriak zabaltzeko faseari ekingo dio.

**CREATION OF COMPANIES PROJECT**
Fashion industry company that links new information technologies and personalised advice. Lookiero replicates the service that teams of personal shoppers offer in physical stores and puts it at the service of its online customers through a platform. Those who enter it detail their measurements, tastes, budget, etc. and formalise an order, receive a box with 5 pieces and proposals with different possible combinations in a few days. Launched in 2016 to the state and French markets, the company has gone from employing 16 to 100 people in a year, and has multiplied its turnover by nine. In 2018, it will address the next phase of consolidation and opening of new markets, including the United Kingdom.

## Sophie et voilà

–

SOPHIE ET VOILÀ

**BIZKAIA SORTZAILEA PROIEKTU SARIA**
Sektoreari zerbait berezia emango zion eta nazioarteko proiekzioa izango zuen ezkontzako moda-baltzua sortzeko asmoz 2016. urtean Bizkaiko emakume ekintzaile bik beren talentuak Sophie et voilà-n batzea erabaki zuten. Beren lehen urtean enpresa bat sortzeak dakartzan zailtasun guztiak bizi izan dituzte, baina baita haren hazkundea bizkortu duen ezokiko arrakasta ere. Emaztegaientzat neurrira egindako jantzien ostean beren bilduma propioa merkaturatu dute. Gaur egun badauzkate lantegiak Bilbon eta Madrilen eta salguneak beste hainbat hiritan. Beren ekoizpenaren %40 esportatzen dute eta haien arropak Estatu Batuetan, Italian, Japonian, Singapurren eta Suitzan aurki daitezke.

**BIZKAIA CREATIVA PROJECT**
In 2016 two entrepreneurs from Bizkaia decided to get together and create Sophie et Voilà, a bridal fashion firm that brings something unique to the sector and has international projection. In their first year they have experienced all the difficulties involved in creating a company, but also an unusual success that has accelerated their growth. From making custom-made wedding dresses they have gone on to launch their own collection. Today they have workshops in Bilbao and Madrid, and points of sales in many other cities. They export 40% of their production and it is possible to find them in the United States, Italy, Japan, Singapore and Switzerland.

## Fundación Solidarters

–

Fair Saturday

**EKINTZAILETZA ETA GIZARTE BERRIKUNTZA PROIEKTU SARIA**
Fair Saturday Bilbon sortu zen 2014an, mundu zuzenago bat sortzeko arte eta kulturaren ahalmena errebindikatzen duten gazteek bultzatuta. Horretarako bultzatzen duten mobilizazioan —urteko kontsumo egunik handiena den Black friday-ren biharamunean— artistek eta kultura erakundeek ekitaldi baten bidez gizarte proiektu banari laguntza ematea nahi dute. Nahikoa dira 2017ko datuak jendea erakartzeko daukaten gaitasuna erakusteko: 500 ekitaldiditik gora, munduko 112 hiritan burutuak, 213 gizarte proiektu lagunduta, eta ia 8500 artista parte hartzen. Kopuruen arrakastaren atzean lantalde baten konpromisoa eta ahalegin handia daude, bere helburuak argi edukitzeagatik eta bere koherentziarengatik nabarmentzen dena.

**SOCIAL INNOVATION PROJECT**
Fair Saturday is a social innovation project born in Bilbao in 2014, promoted by young people who claim the power of art and culture in the creation of a fair world. To that end, they promote a mobilisation that intends to make artists and cultural organisations support a social project through an event the day after the Black Friday, day of greatest consumerism of the year.
The data from 2017 are enough to illustrate their ability to convene large groups of people: more than 500 events held in 112 cities around the world, 213 supported social projects and almost 8500 participating artists. Successful figures obtained through the commitment and effort of a consistent team that has a clear vision of its objectives.

## Batz Energy

–

BATZ ENERGY

**SPIN-OFF IBILBIDE SARIA**
Batz Taldeko enpresa honek biltze bidezko eguzki-energia sortzeko produktu eta zerbitzuak diseinatzen, fabrikatzen eta muntatzen ditu in situ. Batz Energyk ondo erakusten du zer den barne-ekintzailetza, ez sorrerarengatik bakarrik, lehiatzeko abantailarik handiena autogintzaren sektorean daukan esperientzia zabalean izategatik ere bai. SLU legez 2014an sortua, urte gutxitan estatuko eta nazioarteko punta-puntako proiektuetan parte hartzea lortu du. Igorren dauka egoitza eta “edonoiz, edonon” goiburuarekin Estatu batuetan, Hego Afrikan eta Marokon lan egin du enpresak, eguzkiak eta proiektu termosolarrek bertara eraman dutelako.

**SPIN-OFF DEVELOPMENT**
Company of the Batz Group dedicated to design, manufacture and in situ assembly of products and services for the generation of concentrated solar power. Batz Energy illustrates well what intra-entrepreneurship is, not only because of its origin, but also because the greatest competitive advantage is the long experience they have in the automotive sector. Set up as a LLC in 2014, they have managed to participate in leading state and international projects, in a few years. From their headquarters in Igorre, and following their motto: “anytime, anywhere”, they have worked in the United States, South Africa, and Morocco, where the sun (solar thermal projects) takes them.

## Efeuve

–

efeuve Fachadas Ventiladas

**STARTUP IBILBIDE SARIA**
Fatxaden leheneratze eta eraginkortasun energetikoan espezializatuta dagoen enpresa hau 2013an sortu zuten sektoreko profesional batzuek, zerbitzu osoa eman beharra zegoela konturatu zirelako. Efeuvek arkitekturako mota guztietako bilgarri eta instalazioen diseinutik ezarketarainoko zerbitzua eskaintzen du, bai eraikin berrietan zein badaudenetan, bere gaitasun tekniko handiarengatik nabarmenduz. Sortu zenetik 2016a arte enpresaren diru-sarrerak %200 baino gehiago handitu dira eta langileria %90 baino gehiago. 2017an bere ahalegin nagusiak estatuko merkatuan indartzen, frankizia-ereduaren bidez, eta Frantziako hegoaldean zabaltzen egin ditu.

**STARTUP DEVELOPMENT**
Company specialised in the restoration and energy efficiency of facades created in 2013 by professionals of the sector who see the need to offer an integral service. Efeuve covers everything from design to the installation of all types of surroundings and architectural installations both for new buildings and for the energy restoration of existing building. Since its creation until 2016, the company has experienced growth of more than 200% in revenue and 90% in personnel. In 2017, efforts have been focused on consolidation in the state market through a franchise model and international expansion in the south of France.



# 2017

–

Urtero Beazek antolatzen duen enpresa-bileraren barruan 2017ko otsailaren 20an 400 pertsona baino gehiago bildu ziren BECen. Seigarren edizio honetan protagonistak Cookplay, Egoin, Electrorecycler, Euskal Kirol Apostuak, Irrintzi, Lointek eta Permar izan ziren, IV. On Bizkaia sarien irabazleak.

Urtero bezala goiburu nagusi bat izan zen ahaldun nagusiaren, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko diputatuaren, eta Innoprot, IPF, Metal Smelting, Navacel eta PCBk izan zuten eztabaidaren artean. 2017an enpresen hazkundeaz aritu ginen.

In the frame of the business meeting annually organised by Beaz, last 20 February 2017, more than 400 people met at the BEC, as well as the winners of the IV ON Bizkaia Awards: Cookplay, Egoin, Electrorecycler, Euskal Kirol Apostuak, Irrintzi, Lointek and Permar that also took part in this sixth edition of the event.

As every year there was a common topic in the talks of the general deputy, the deputy for Economic and Territorial Development, and the debate between Innoprot, IPF, Metal Smelting, Navacel and PCB, this year the topic was business growth.






**Aurreko edizioetan saritutako enpresak**
**Companies awarded in previous editions**

**2014**
Ariadna Instruments
RDT Engineers
Babcock Valves
Artesanía Graci
CAF Transport Engineering
Grupo Ticketbis

**2015**
DB Iberia
Protec Arisawa
Insertec
Relevo Videogames
Gestamp Tool Hardening
Dynakin

**2016**
CMI
Kautenik
Kuaderno
Venturmoda
ITP Externals
Educaedu

**2017**
Egoin
Permar
Electrorecycler
Cookplay
Irrintzi
Lointek
Euskal Kirol Apostuak






Iritzia
Opinion
–

# Euskadi

## “Berrikuntza irekiko” lurraldea
## Berrikuntza irekia, industriaren garapenerako motorra
## Euskadi: “Open Innovation” Territory
## Open innovation as an engine of industrial development



Antonio Flores berrikuntzan oinarritutako negozio-eredu berrien sorkuntzan aditua den Loop Business Innovation estrategia-aholkuetxearen kontseilari-ordezkaria da. Gainera, artikulugilea, hizlaria, irakaslea... da. Fazeta guzti hauek ETE eta multinazionalentzat lanean bete dituen 25 urtetik gorako jakintzaz elikatzen dira. Estrategia horretatik haren “filosofia” ere sortu da: enpresariek ekintzaileak izaten jarraitu behar dute, beren jokabidean eta enpresa kudeatzerakoan ere bai.

Antonio Flores is founder and director of Loop Business Innovation, expert strategy consultant in the creation of new business models based on innovation. He is also a columnist, lecturer, teacher... Multiple facets developed throughout more than 25 years working in the development of projects for SMEs and multinationals. In fact, his philosophy of work: “the need for businesses to remain entrepreneurial in their attitude, and when managing the company”, comes from this experience.

***www.loop-cn.com***
***www.antoniflores.com***

“Berrikuntza irekia” kontzeptua Henry Chesbrough akademikoak erabili zuen lehenengo aldiz 2003an. Berak dioenez ideiarik onenak dauden lekutik jaso behar dira, enpresa “barruan” edo “kanpoan” garatu diren kontuan hartu gabe. Denok gara jakintzaren bezero eta hornitzaileak aldi berean: gure estrategiari egokitzen ez zaiona hirugarren batek gara dezake.

Chesbroughek zenbait lekutan gauzatu diren prozesuak intelektualizatzen ditu, hurrengo ezaugarriak dituztenak: enpresen atomizazioa, bezero/hornitzailearen arteko harreman ekosistemikoa, sarbide fisikoa izateko zailtasunak eta tamaina eza.

Berritasuna honetan datza, enpresen negozio-eredua eta haien jakintza berrikuntza-politiken erdigunean kokatzean. Negozio-ereduaren galbahe eta irizpidea izan gabe berrikuntzak ez dauka “aukera kosturik”. Berrikuntza enpresen beharrizan estrategikoen eta merkatuen abagunearen arabera baldintzatu eta mugatu gabe, berrikuntzak ez du baliorik.

Gaur egun enpresek, nahiz eta oso handi eta ahaltsuak izan, ezin dute lehiatu eta amortizatu bakarka; hortxe datza benetako potentziala:

- Gain-ekoizpena eta gain-eskaintza duten merkatuetan lehiatzen gara eta aukera-leihoa gero eta estuagoa da.
- Lehiatzaileak bezero berberaren atzetik doaz eta abiadura funtsezko gaia bihurtu da: gure proposamenen ezagutza zabaltzeko abiadura eta bestearen abantaila lehiakorrak ezabatzeko abiadura.
- Ezinezkoa da merkatuak gure produktuekin betetzea lehenagotik erabilitako ezagutza gure lehiakideen esku egon eta erreakzionatzeko astirik izan gabe.
- “Enpresa bikaintasuna” berrikusten ari da: denon eskura dago, erosi egin daiteke eta honezkero ez da elementu bereizgarria. Bikaintasunak lehia suntsitzen du; gaur egun ez da nahikoa bikainak izatea.
- Zaharkitze kontzeptuala ahaleginaren amortizazioa baino lehen heltzen da: enpresek ez dute amortizatzeko astirik eta beren jokabide guztiak berrikusi behar dituzte.

